


A photograph of a middle-aged man with short brown hair and blue eyes, wearing a dark green ribbed turtleneck sweater. He is sitting on a red brick patio, looking towards the camera with a slight smile. A pair of glasses is hanging from his sweater. To his right, a black and white dog is lying down. In the background, there is a wooden fence and some greenery with pink flowers. A green watering can is also visible on the patio.

Eñaut Etxamendi

• PERTSONAIA •

«Goiz edo berant, EAJk eta ETAk beharko dute politika berdina egin»

Nun dira ene lagunak, Otxagabian, Joseba Elozegi, Zutik, Yip lala... Etxamendi eta Larralderen botzak, biak bat eginik, airean, garai joan batekoak iduri, gure ekialdeak ekarriak. Dei bat noiz gozoa, noiz larria zekarren biko mitikoak, aldarrikapen politikoa irakiten zegoen aro batean. Borbor hura pausaturik ere, txinparta garretan dira Eñaut Etxamendiren buru-bihotzak. Kantuan ari zenean bezain bipil eta bilorik gabe mintzo da olerkari, eleberrigile, irakasle ohi, laborari... "baina abertzalea!" –Telesforo Monzonek oihu egin ohi zuen maneran– den nafarra.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Zure arreba ezagutu nuen Kalifornian, Maite. Orduan nuen jakin zuen etxean azkarki izan zela emigrazioa.

Zortzi haurride izan ginen, eta zazpi gara bizi-rik. Anaia lehena hil zen bi urtetan. Zazpi horietarik, gehiago dira Ameriketan hemen baino. Anaia gehiena ez zen Ameriketara partitu, eta arreba bat ere banuen hemen, Garaziko Lekunberrin, duela hiru urte galdu zuena. Haiek biak eta ni geratu ginen hemen.

Nola izan zen zure haurrideen partitzea? Bazen tradizioa edo zerbait, Amerikarako?

Bai, bazen, baina hemen izan zen memento bat, ekonomia eta kultura aldetik oso behea,

Nortasun agiria

Eñaut Etxamendi (1935, Ezterenzubi) Zortzi seme-alabetan laugarrena, haurretan ukan zuen infekzioak atxiki zuen sorterrian, Amerikara gabe, hara baitziren zortzi seme-alabetan bost. Beloken ikasi zuen 12 urterik 18 urte arte. Gero, Zientzia Politikoak ikasi eta Ekonomia irakasle ari izan zen Donapaleuko laborantza eskolan. Guztiarekin ere, ukan zuen astia Euskal Herriaren borrokarekin bat egin eta iheslarien artean hainbat lagun egiteko, olerki, kantu eta eleberriz ikiriatzeko, hamaika urtez Larralderekin batera herriz herri kantari ibiltzeko, eta laborari izateko... Erretretan sartu eta ez zuen atsedenik hartu: doktore tesia egina du, euskara hizkuntza indoeuropar direnekin xeheki alderatuz. Berriki, Milakabilaka ekimenean parte hartu du, eta prozesuaren blokeoa –"urdekeria"– salatu.

oso gaizki. Gerra denboran, nekazariak hein bat, ez dut erraten ontsa zirela, baina hein bat egiten zuten, baizik eta janarien prezioak garestitu ziren eta zertxobait irabazten zuten. Gerla bukatuta, bospasei urte goiti-beheiti, 1952 arte edo, lehenbiziko krisia izan zen, haragiarena, okelarena. Frantzian eta Europan produkzioa bazen, baina hemen atzerago geunden. Toki hau ez zen batere administratua. 1947an edo 48an, etsenplu bat emateko, eritasun izugarritzko bat izan zen arditan. Egutero hiltzen ziren ardiak! Nehork ez zekien zer zen. Ez zen inoiz izan administrazioko fitsik, ez albaiteorik ez fitsik, hemen! Nik esaten dudalarik, nik, ene haur denboran ikusi dudana gauza bakarra: estatuak zer egiten zien gure *ciudadano* frantsesak diren hauei? mutilak eramaten zituzten gerlara! Bizirik etortzen zirenak biziatuta tabakoan, alkoholean eta putetan! Hori zen Frantzia sailduak nik ezagutu dudana nire umetako gizarteari egiten zion guztia.

Neskak?

Neskak joaten ziren neskato, etxetako garbiketarak egitera etortzen diren horiek bezala, Bordelera eta Parisera. Mutilak ere joaten ziren Ameriketara! Bazen Donibane Garazin agentzia bat Air France-rena, eta astelehenetan, merkatu egunean, ikusten zenituen mutilak, batzuk bestean atzetik, paperen egiteko. Lapurtxo bat zen hori egiten zuena.

Zendako partitu ziren zure haurrideak Amerikara eta zu, aldiz, hemen izan zinen?



Nik banuen tipitik izugarrizko sarraski bat ukani ezkerreko zangoan. Hortarik gelditu zitzaidan infekzio bat hezurrean: tafilokoko doratua. Eta, noizetik noizerat, berriz hanka hatsetzarri egiten zitzaidan eta hemen gelditu nintzen. Denbora hartan elizak eta apezek izugarrizko eragina zuten, eta nire ama gaixoak bazituen bi iloba beneditarretan zirenak, apezgai. Eta, ama batek nola egiten duen, Beloken sarrarazi ninduen eta horrela egin ditut estudioak. Gero, nekazaritzako goi-eskolan ikasi nuen Purpanen, jesuiten artean, eta Zientzia Politikoak Tolosan. Zazpi haurditarik bakarra izan naiz estudioak egin dituen.

Maroko

“Hemezortzi urtetan Pauen nintzen, Andre dona Maria Sortzez Garbia kolejioan, Beloeko beneditarrek zeukaten etxe batean. Han ari nintzen, bigarren baxoa egiten eta lanean, haur ttipiak beren harat-honatetan laguntzen. Han nengoela, egun batez etorri zitzaizkidan bi apez. Bi apez haiek laborantzako perito egiteko Purpanerat ninduten bultzatu. Apezak ziren hemengo elitea orduan. Ez zen besterik hemen. Beste eliteak ziren arrotzak; gaskoinak eta horrelakoak. Euskara pixka bat egiten zuten, beren bezeroak ulertzeko. Iduri zuen Marokon ikusi dudana bezala, sozietate tronkatu eskizofreniko bat: herri bat bazen bere hizkuntzarekin eta bere kulturarekin, eta elite bat ez zena herriko. Kolonoak bezala! Nik horrela ezagutu dut hemen!”.

(Nola Zientzia Politikoak ikasi zuen kontatu du, nola emaztegaia egin, ezkondu eta Senegalen izan zen bi urtez, tesia egiten eta lanean... Eta luzaz, oren erdiz, segitu du Senegalgo hidrologiaz, ureztatze sistemaz, ur ezti eta gaziaz eta han inprimaturik ikusi zituen ezin konprenituzko zozokeriez haserre... Eten diodan arte). Eñaut!, zu irakasle ohitua zara, baina ez ikasle!

Utziko zaitut... Inspektore batek erran zidan: “Ez duzu aski mintzarazten eskolan”.

Zu mintzatuko zinen orduan ere! Ez didazu galderarik egiten ere uzten. Berrogeita bost minutuz ari izan zatzaizkit nekazaritzaz mintzatzen. Non da Etxamendi kantaria?

Kantaria... Nornahi kantari da. Etxean ama ere kantari zen. Arreba ere bai. Ez da, ez, hori izan enetako inportanteena, kantatzea. Enetatzat gauzarik garrantzitsuena nekazaritza zen beti, hori zen arimazko gogo. Eta nekazari jendea. Hemen euskalduna besterik ez zen, eta ikusten nituen denak joaten. Mutilak Ameriketara eta neskak putetxeetara lanera, Parisera. Behin hori erran nuen, Enbata sortu garai hartan, eta, “Alua!”, gizon batek. Uste nuen joko ninduela. Egiaren errateak, mina, zauria konpontzea ekarriko du. Bizkitartean, zauria hunki gabe ezin duzu konpondu mina.

Zuk zauri hori kantatu nahi ukan duzu, Larral-derekin.

Hamazazpi urtetarik eta hogeita hamabost urte arte, gertatu da hemen memento bat lazgarria, gogorra iruditu zitzaidana, baina jendeak ez ziren denak kontziente. Hemen ikusten nituen mutilak, charterrak osoak, Ameriketara, eta nes-katoak Pariserat. Jendeek ez zuten ikusten, eta ez zuten nahi! Apaizek eta horiek erraten zidaten: “Sozietatearen etsaia, hi!”. Erotzen ziren, ez zuten nahi! Partikulariki, tokiko eliteek, edo elite bezala zirenek, mediku, apez eta burgesek. Gu horiendako deabru gorriak ginen! Erraten ziguten jendea zikintzen, lotsatzen ari ginela. Erraten genuelarik “horrelako nekazaritza ez da bizitzen ahal, behar da beste gisaz jokatu”, lotsarazten genituen! Elite bezala ziren haiek ez zuten hori nahi!

...
Bada beste gauza bat euskaldun askori gerta-tzen zaiona, bai hemen eta bai Hegoaldean. Eta kolonian ber gauza ikusi dut arabeekin eta beltzekin. Ez dute sekula dena erran, ez dute erranen gogoan duten hori dena. Sobera ahul sentitzen direlako, eta indar astapitua dutelako, gainetik den inperioa, kontsentsu zera hori, mintzatzeko manera... Ahul guziek ikasten dute. Ez dute bakarrik handiek gezurra erra-ten. Jende ahulak gezurra du bere zaindaria.

Gezurra erraten da, lehenik eta bat, bere buruari ez sobera fite min egiteko. Gezurtariak lehenik bere burua nahi du konbentzitu.

Horretan gara gu, egun?

O, bai! Izugarrizkoak ikusten dira. Txanogorri-txo bezala, “seduzitu behar dugu Madril!”. Otsoari Txanogorritxok erraten dio: “Ez naiz polita?!” Alukeria horrekin berarekin baduzu tesi baten egiteko! Konparazione, orain erra-ten dutena, Enbata: negar ematen du. Aluke-ria! Lehenik erran dezadan, ez gaizki konpreni-tzeko, nehork ez du maite gerla, ez nik, ez soldaduek, ez ETako inork. Ez du inork egi-ten plazerez afera hau. Baina, gero, hamaika aldiz egunean goraki erranez, “ordainketa poli-tikorik gabe”..., zer dela jendea uste dute? Horrek erran nahi du belaunika eta ipurtzulo-tik sartzen! Rocard, aski pazifista da, beste asko gauzaren artean erran du: “Bi alderdiek ez baldin badiote elkarri zer bait onartzen, ez da posible!”. Ez naiz batere, baitezpada, Bata-suna zale, baina, erran zuten lehenik mugatzen zutela beren galde hitza Hegoaldeari bakarrik, Nafarroa uzten zutela berak hautatzera bere bidea, eta autonomia munduan gelditzen zire-la. Besteek ez zuten milimetrorik ere!

Ez zara, baitezpada, Batasuna zale, diozu. ETA zale izan zara, lagunak ukan dituzu. Nun dira ene

kulturagenda

Uztailaren 16tik 31ra



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak:

Soinu dimentsioa

Artistak: Alien Productions, Mikel Arce, Andres Bosshard, Ramón González-Arroyo, Gary Hill, Tom Johnson, Donatella Landi, Bernhard Leitner, Alvin Lucier, Baudouin Oosterlynck, Paul Panhuysen, Manuel Rocha Iturbide, Isidoro Valcárcel Medina

Uztailaren 12tik Irailaren 15era.

Erakustaretoan


Aurora Bengoechea (1943-1991)

Bizitza pintatua

Uztailaren 11tik Irailaren 1era

Ganbaran

Ordutegia: asteartetik larunbatera
10:30-14:00 eta 16:00-20:30
(astelehen, igande eta jai egunetan itxita)



Kristobaldegia, 14 | 20014 donostia | www.arteleku.net

Tallerra

Litografia


Abuztuak 6-31

Koordinatzailea: **Don Herbert**
Ordutegia: astelehenetik ostiralera,
goizez eta arratsaldez.
Izena ematea: uztailak 25
Prezioa: 78,13€

Avid ikastaroa

Hobekuntza

Digitalizazioa eta edizioa
AVID sistemaren bitartez
Irailak 3-7
Koordinazioa: Gabriel Corbella
Prezioa: 30€
Taldea: 6 lagun gehienez.
Ordutegia: goizez 10:00-14:00
Izena ematea: ikastaroa hasi
baino 20 egun lehenago



www.gipuzkoa.net/kultura



Gipuzkoako Foru Aldundia



lagunak... Goratu duzu zure kantuetan: Zutik, mutil, eta zutik...

Ez naiz beti ados izan, gerla orotan bezala, petto gaitzak izan dira. Baina ETA zale nintzen, bai... eta oraino ere hala naiz. Egunetik biharrera, ez balitz...

Zu baino hotzago da, egun, anitz jende.

Uste, hotzago dela. Jendea bada hozten dena. Konparazione, hor dut, irakurtzen ari dut, Madariagaren bizia. Gizajoa, iragana duenarekin, ulertzen da ezin duela bide horretarik segitu. Madariagak hirurogeita hamalau urte ditu, baina badira hogeita lau urtekoak, eta hamalau urtekoak beste batzuk. Horiek oraindik ez dute egin Madariagak bizi izan duena, eta horiek berriz egiten dute. Batzuek erraten dutelarik, “jendea hoztu da”, bistan da, adinak emanik, eta disgustuekin, baina beste jende bat bada itxaropena horretan duena. Hori isilik dago, ez duzu ikusten. Gure etsaia entseatzen da hori drogatzan. Ameriketara horrela egin zuten Kennedy sainduak eta. Izan zirelarik hippyak, eta *black panter* eta horiek, denak drogarekin ezeztatu zituzten.

...

Bada erraten dena, eta sinetsi gabe erraten dena. Beste batzuetan, jendeek hobe lukete mihia jan balute mintzatzen hasi aitzin. Iruñean badut aspaldiko lagun handi bat, adiskide mina. Erran duelarik “ETAk erran du ohartarazi gabe ez duela ezer egiten eta aldi honetan, deus erran gabe, zartarazi du bonba”. Eta astoei badoa, beleak beleekin karranka sar-

Barajas

“ETAkoei ez diet erran, ez dut haietako nehor ikusten, baina beraiek ikus ditzaketen batzuei erran diet: ‘Marcos komandantearen modua hartzea bazenute! Ez dakizue mintzatzen!’. Barajasen, pitokeriak kontatu dituzte beren testu horretan. Ez zen berrogei lerro behar, hamar lerro, gehiena! Horrelako zerbait: ‘Hiru aldiz abisua eman dugu, eta ahantzi duzue lo ziren bi gizonak ohartaraztea’. Puntu. ETAkoei ez dakite hitz egiten! Eta besteek aldiz, badakite. Abilak dira, izorratzeko!”.

tzen diren bezala. Behar zuen asmatu seguruenik hori egin bazuen errana ziola parekoari, eta parekoak errana zion “izorra hadi!”. Nolako gezurrean jendea egoten! Espres egina dute! Krimen horretan beste hiru aldiz ohartarazi zuten. Hiru aldiz!

Ez duzu esaten duzunaren gaineko kezkarik?

Pentsatzen dut nik analiza bat egin dezakedala, eta ez da hori propaganda egitea. Gero, zuhaurek ere kasu egiten duzu nola ezartzen duzun.

Hautzaroan hasi gara mintzatzen. Nekazariak ere ari izan gara eta, ondotik, politikan estekatu gara, kantura heldu gabe. Ez al da ETAk gainerako solas eta borroka mota oro isilarazten?

“ETAren borroka itzalkatzen dituela beste borroka” arrazonamendua da hori. Hein batean erraten ahal da baietz, baina beste hein bat handiago da, ezen beste borroka horiek baldintzatzen ditu ETAk. Ikusten duzularik 800 familiek badituztela semeak eta alabak preso, horrek gutako bakoitzean badu eragina, guhaur ohartu gabe lanean ari baita. Ogiaren oreka ari delarik hantzen, andre batek ume bat ari duela sabelean egiten, ez da negarrik entzuten, ez da ogirik egiten. Bakoitzean-bakoitzean ari da lanean. Nork daki noiz hautu batzuk presentatu, bai edo ez egiten duelarik, kontuz horien sakrifizioak egiten duen eragina! Egiten dugun lana behar dugu egin ahalik eta zorrotzen, hoberean. Ez gara egoten ahal. Beste batzuk, nahiz eta ados ez izan, konparazione, zibilak hiltzen hasi zirelarik, ni ez nintzen ados, etsitzekoa

ere bazen, gure buruari ari ginen harrika, printzipioz ez zuten amore ematen ahal. Ez gara egoten ahal ahoa zabalik tragediari so, beste batzuk bezala, nahiz ados ez izan beti... Baina printzipioz ez zutela amore ematen ahal ulergarri da: hara tragedia. Metodoak alda? Baina borroka jarrai. Berrogei urtez “deus gabe”? Ez. Batzuek fruituak, bestek kartzela.

Zer dio zure barneak geroari buruz?

Ez dut ikusten biharko! Baina goiz edo berant, EAJk eta ETAk beharko dute politika berdina egin. Egunen batean EAJko jendeak egingen du ETaren estrategiarekin bat, Madrilek beharko du bere brageta jaitsi, beharko du kalmatu. Goiz edo berant, Euskal Herriko eskuinak beharko du, gisa bat edo beste, beharko du etorri estrategia komun batera besteekin. Hori hurrantzeko manera hobere-na da elekziotan indarraren galtzen hasten badira. Ehun mila boz galdu dituzte eta hori da bide ona. Ez dute besterik konprenitzen. Ez dira usatuak burgesak berek egiten gerlak. Pobreak egiten dituzte CRS, guardia zibil, soldadu eta. Pobreak helarazten dituzte gerlarat, berak ez dira usatuak, ez dira arrisku horien hartzeko gizonak. ETaren eta ezkeraren presio hori ez balitz, ni segur naiz Madrilek ez liokeela utziko uzten duen autonomia hori, eta berek ez lezaketela egiten duten bezainbat egin. Ageri da beste esperantza bide bat: gizarte zibila euskal instituzio guztiak baino aurrerago da, anitz gauzatan.

“Konparazione”?

Ikusten dituzularik lehenbiziko guraso gazteak, arriskatu direla, orduan ziren aurreiritzi negatiboekin, ausardia hartu dutela, estatua-ren *hostilitatea* han izanki eta, beren umeak –bakoitzak maite ditu bere umeak!– ezartzen eskola batean ez dakizuna zer emanen duen pedagogia mailan, ofizialki administrazioa kontra duzuna. Bestalde, sakelan beharko duzu ezarri eskua, dirurik ez... Orain ikusten duzularik, hogeita bost urteren buruan, uni-bertsitate mailan, goren mailan, besteak baino hobeak direla ikastoletatik atera umeak... –UPNkoek ere ezartzen dituzte umeak ikastolan!–, hori egin behar zen. Ez zen egingen, hori gizarteak du egin! Hemen Herrikoa sortu delarik, estatuak ez du onar-tu, hemengo prefetak ezetza eman dio! Lehen kooperatiba Arrosakoa eginga zelarik, zurgintzaz, Paueko prefetak Labeguerieri errana: “Ez dut sekula kooperatiba hori bai-menduko, banda separatista baten bilgune baita!”. Egin zen hala ere. Alta, mugatuak gara, ez gara biziki abilak, ahulak gara, guhauren artean badugu lanik aski, besteak bezalakoak gara... Zuberoakoak bezala.

Huelva

“Ulertzen dut ETAk ukatzea ukanak dituztela izorratzaileak barnean. Normala da konprenitzeko. Orain, teknologikoki bi estatuak hainbeste indar badute, ez dute barnean ia kasik izate beharrik. Denak ezagutzen dituzte. Konparazione, Huelvako horretan, segur asko, kamioia hartu dute, baina espres utzi dituzte mutilak eskapatzen. Haiek segituko dituzte! Eustakiori [Mendizabal, Txikia] egiten zioten joko bera. Ez zuten hil nahi. Eliteko tirariak zituzten, kolpatu zuten, auto batean eskapatu nahi izan zuen eta, orduan, bere burua garbitu. Erran zuten bere burua garbitu zuela. Enetako, nik uste dut hala egin zuela, zeren bai baitzekien drogatuak zutela eta erranaraziko zizkietela... Eustakio Mendizabal. Xuxena zen. Labanaren ahoa bezain xorrotxa”.

AZKEN HITZA

Itxaro Bordaren irakasle

Itxaro Bordak elkarrizketa batean esana: “Nekazaritza ikasi nuen bigarren mailan Donapaleun. Nekazaritza munduko legeak, behien bazkatzeko teknikak eta ekonomia aldetik anitz gauza ikasi nituen. Irakasle bikain bat ere izan genuen ekonomian, Eñaut Etxamendi. Honen irakaspenek munduaren egungo ikusmoldea baldintzatu ziguten. Etxamendi euskal kantagintzan ezaguna da, idazle aparta eta edozein borroka abiatzean haren pentsamenduaren itzala dugu burue-tan oraindik. Edo haren kanta bat, ibiltzeko makila bezala”.

Zuberoakoak?

Zuberoa etsenplu izugarria da. Ikusten duzularik herri ttipi batean hirurehun jende ez den batean, eta muntatzen dute pastoral. Eta berek ez dute pastoral ikusteko xantza-rik, zeren berak denak dira lekuan ezartzen, edo edaterat ematen. Parisen dituzten herri-tarrak, eta herritarren emazteak edo, sena-rrak edo... Ahal duten guztiak harat joaten dira, eta sei hilabetez aritzen dira galdua duten hizkuntza batean, olerki osoak ikasten eta kantatzen. Eta zuberotar jendea gu bezain gaiztoa da. Ikaragarri! Departamenduko lis-karrik gehien tribunal aitzinean –orain dela urte asko horrela izan da, orain ez dakit horretan denez–, Barkoxen izanak dira. Beti auzoak elkarren aurka. Auzoko emaztearen ipurdia hunki eta ez dakit zer. Denak badi-tuzte! Beste sozietateak bezala. Eta horrekin guztiarekin, zuberotarrek egiten dute egiten dutena! Gizakiek ezin sinetsizko gauzak egi-ten dituzte, eta mugatuak dira, gaiztoak dira, deseuskaldunduak dira. ■



Iurdesleria
ileapaindegia

La Salle, 8
20140 ANDOAIN
Telf.: 943 300 360